

UDAL OSOKO BILKURAREN AKTA



Batzarra: Ez ohiko urgentea.

Eguna: 2019/06/24

Ordua: 19.30H – 19.42h

Tokia: Kofradia Zaharreko 2. Pisua

Bertaratuak:

Alkatea ZUNBELTZ BEDIALAUNETA IBAIBARRIAGA (Bildu)

ENERITZ BASURKO PAGOAGA (Bildu)

ARANTZA ATXURRA ARANGUREN (Bildu)

ARITZA ARISTONDO NATXIONDO (Bildu)

IRINA ALKORTA BEDIALAUNETA (Bildu)

PEDRO LASARTE IPARRAGIRRE (Bildu)

MARIA DOLORES ETXANO VARELA (EAJ)

ADRIANOSA IBARLOZA (EAJ)

AGURTZANE IRIONDO LEJARDI (EAJ)

GORKA BADIOLA ETXABURU (EAJ)

ADINA CARRIL AZKARATE (EAJ)

Ez bertaratuak:

NAGORE BADIOLA ALBERDI (Bildu)

AITOR BASTERRETXEALBERDI (EAJ)

Idazkaria: Jose Urraza Aldayturriaga

Jarraian, Alkateak, azaroaren 28ko Errege Dekretu bidez oniritzitako Tokiko Erakunde Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoen Araudiko 90. artikuluan zehaztutakoren arabera, behar besteko quoruma dagoela egiaztatu du, eta batzordea eratutzat jo da.

Plenoa hasi aurretik **Aritz Aristondo Natxiondo** jaunak zinegotzi kargua hartzen du, 5/1985 Lege Organikoa eta 7/1985 Legeen xedapenak beteta.

Ondoren, gai zerrendako aztergaiak aztertzen hasi dira:



- 1. Urgentziaren bilkura onartzea.**
- 2. Aurreko aktaren onespena, egoki balitz (2019/06/15)**
- 3. Udal osoko ohiko bilkuren aldizkatasuna finkatzea**
- 4. Organo kolegiatueterako Udalbatzaren ordezkariak izendatzea**
- 5. Batzorde informatzaile iraunkorrak eta kontuen batzorde berezia eratzea eta ordezkariak izendatzea**
- 6. Alkatearen ebazpenen berri ematea**
 - Alkateordeak izendatzeaz**
 - Tokiko Gobernu Batzarraren kideez**
- 7.- Alkatearen eta alkate ordezekoaren dedikazioak onartzea**
- 8.- Behin behineko pertsonalaren izendapena**
- 9.- Talde politikoaren eta bere bozeramaileen berri ematea**

1.- Urgentziaren bilkura onartzea.

Idazkari jaunak azaltzen du gaurko plenoko deialdia ekainaren 20an egin zela, tartean ez dira 2 lanegun izan, beraz, ez ohizko premiazko moduan burutu behar da osoko bilkura hau. Horretarako, udalbatzak onartu behar du premia edo urgentzia.

Aho batez onartzen da gaurko osoko bilkuraren premia.

2.- Aurreko aktaren onespena, egoki balitz (2019/06/15)

Alkate jaunak galdetzen du ea batzordekideren batek akta testuari buruzko adierazpenik egin nahi ote duen. Adierazpenik ez dagoenez, akta aho batez onartzen dute.

3.- Udal osoko ohiko bilkuren aldizkatasuna

Udal osoko ohiko bilkurak hilero egitea, hilaren hirugarren ostegunean, 19.30h eta hala ez bada laugarren ostegunean.

Abuztuko hilabeteari baliorik ez aitortzea Udalbatzarraren ohiko bilkuretarako. Beraz ohiko 11 osoko bilkura izango dira.

Udal osoko bilkurak Kofradia Zaharreko 2. Solairuko areto nagusian egitea, irisgarritasun baldintzak bermatzeko.

Aho batez onartzen da.

4.- ORGANO KOLEGIATUETARAKO UDALBATZAREN ORDEZKARIAK

Alkate jaunak jarraian adierazten diren ordezkariak proposatzen ditu organo kolegiatueterako:



-LEA ARTIBAI MANKOMUNITATEA

- Zunbelz Bedialauneta Ibaibarriaga (Bildu)
- Eneritz Basurko Pagoaga (Bildu)
- Maria Dolores Etxano Varela (EAJ)

-BBK BATZAR OROKORRA

- Ordezkarria: Eneritz Basurko Pagoaga
- Ordezkoa: Zunbeltz Bedialauneta Ibaibarriaga

-BIZKAIKO UR PARTZUERGOA

- Ordezkarria: Zunbeltz Bedialauneta Ibaibarriaga
- Ordezkoa: Eneritz Basurko Pagoaga

-EUDEL: Zunbeltz Bedialauneta Ibaibarriaga

-EUSKAL FONDO ELKARTEA:

- Ordezkarria: Eneritz Basurko Pagoaga
- Ordezkoa: Zunbeltz Bedialauneta Ibaibarriaga

-UEMA

- Eneritz Basurko Pagoaga
- Arantza Atxurra Aranguren
- Zunbeltz Bedialauneta Ibaibarriaga
- Adina Carril Azkarate

-UDALBILTZA:

- Ordezkarria: Zunbeltz Bedialauneta Ibaibarriaga
- Ordezkoa: Eneritz Basurko Pagoaga



-HAURRESKOLA PARTZUERGOA

- Ordezkaria: Eneritz Basurko Pagoaga
- Ordezkoa: Arantza Atxurra Aranguren

-LEA ARTIBAI GARAPEN AGENTZIA:

- Ordezkaria: Eneritz Basurko Pagoaga
- Ordezkoa: Zunbeltz Bedialauneta

-LEA ARTIBAI LANDA GARAPEN ELKARTEA:

- Ordezkaria: Zunbeltz Bedialauneta Ibaibarriaga
- Ordezkoa: Eneritz Basurko Pagoaga

-MUSIKA ESKOLA:

- Ordezkaria: Eneritz Basurko
- Ordezkoa: Zunbeltz Bedialauneta

- Ondarroako Emakumeen Udal Berdintasun Kontseiluaren presidentea, Udal Berdintasun Saileko zinegotzia; Irina Alkorta Bedialauneta.

Aho batez onartzen dira adierazitako karguak organo kolegiatuetarako.

5.- BATZORDE INFORMATZAILE IRAUNKORRAK ETA KONTUEN BATZORDE BEREZIA ERATZEA ETA ORDEZKARIAK IZENDATZEA

Batzordeak eratzea bakarrik proposatzen da, ordezkarien izendapena hurrengo plenoan onartuko da. Beraz, aho batez onartzen da, honako batzar hauek eratzea:

KIROL BATZORDEA.

INGURUMEN BATZORDEA.

HEZKUNTZA BATZORDEA.

HIRIGINTZA BATZORDEA.

ONGIZATE BATZORDEA.
KULTURA BATZORDEA
BERDINTASUNA BATZORDEA
EUSKARA BATZORDEA
PERTSONALA BATZORDEA
OGASUNA ETA KONTUEN BATZORDE BEREZIA
ANIZTASUNA BATZORDEA
TURISMO BATZORDEA
MERKATARITZA BATZORDEA
Batzorde bakoitzak erabakiko du bere aldizkatasuna.



6.- ALKATEAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA

Alkate jaunak jarraian aipatzen diren izendapenen berri ematen du:

-ALKATE ORDEAK IZENDATZEA 690 dekretuan ebatzi da:

“2019/690 DEKRETUA

Zunbeltz Bedialauneta Ibaibarriagak, Ondarroako Alkate Udalburu legez, eta 7/85 Legeraren 21.2 eta 2568/86 Errege Dekretuaren 46. Artikuluak emandako ahalmenak erabiliz, honako hau;

EBATZI DUT:

Lehena: Alkatearen funtzio guztiak bete ditzaten, Alkatea bera egon ezean, gaixorik egotekotan edo bere eskurantzak erabili ezina izatekotan, eta baita Alkate berria bere karguaz jabetu arteko huts-unaldia gertatuz gero ere. Honako zinegotziak izendatzen ditut hurren hurren alkateordeak:

- Alkateorde lehena: Eneritz Basurko Pagoaga
- Alkateorde bigarrena: Arantza Atxurra Aranguren
- Alkateorde hirugarrena: Aritza Aristondo Natxiondo
- Alkateorde laugarrena: Irina Alkorta Bedialauneta

Bigarrena: Erabaki honen berri interesdunei eta Udalbatza Osoari ematea.

Hirugarrena: Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

.....”

-TOKI GOBERNU BATARRA IZENDATZEA, 706. DEKRETUAN EBATZI DA:

“2019/ 0706 DEKRETUA

Zunbeltz Bedialauneta Ibaibarriaga jauna, Ondarroako Alkate Udalburu legez, eta 7/85 Legeraren 21.2 eta 2568/86 Errege Dekretuaren 46. Artikuluak emandako ahalmenak erabiliz, honako hau;



EBATZI DUT:

Lehena: Alkatearen Toki Gobernu Batzarraren kideak izendatzea, honako hauek izango direlarik:

- -Eneritz Basurko Pagoaga
- -Arantza Atxurra Aranguren
- Maria Dolores Etxano Varela
- Aitor Basterretxea Alberdi

Ondarroan, 2019ko ekainaren 24a

.....”

Alkateak aipatzen du Toki Gobernu Batzarra bakarrik eratzen dela, ikusiko dela ze eskumen izango duen.

7.- ERABATEKO DEDIKAZIOAK ONARTZEA

Udalbatzari proposatzen zaio jarraian aipatzen diren dedikazio osoak eta ordainsariak:

Zunbeltz Bedialauneta Ibaibarriagak eta Eneritz Basurko Pagoagak izango dute erabateko dedikazio osoa. Aipatuko diren soldatak onartzen dira:

Alkatea: **45.587,65€** ordainsari gordina, 14 pagatan.

Eneritz Basurko Pagoagak: **34.756,63€** ordainsari gordina, 14 pagatan.

Gizarte segurantzako erregimen orokorrean dagokion alta ematea.

BOB-en argitaratu

Beste aldetik

283,48€ sei hilabetero, talde politiko bakoitzarentzat, sei hilabete bakoitzaren bukaeran ordainduko direnak.

68,04€ hilabetero, talde politikoen zinegotzi bakoitzeko, hiru hilabete bakoitzeko bukaeran ordainduko direnak.

Plenoetara joateagatik indemnitzazioa: 70€ pleno bakoitzeko, dedikazioa ez dutenen zinegotzientzat.

Zerbitzuko kalte ordainketak, 16/1993ko Dekretuaren arabera.

Udalbatzak aho batez onartzen du.



8.- BEHIN BEHINEKO PERTSONALAREN IZENDAPENA

Alkateak Eneritz Artaetxebarria Urbietaren izendapenaren berri ematen du, 695. Dekretuaren bitartez.

"2019/0695 DEKRETUA

Ikusita, 2015eko ekainaren 13ko Alkatetzaren ebazpena, non Ondarroako Alkateak Eneritz Artaetxebarria Urbietara andrea Artibai Egoitzako zuzendari lanpostua betetzeko behin-behineko langile izendatu zuen, horri dagozkion 1.2.5.01 lanpostu kodifikatuaren funtzio bereziak egotzi zitzaizkiola.

Ikusita, Ondarroako Udalean lanpostu hori betetzeko baldintzak eta titulazioa Eneritz Artaetxebarria Urbietara andreak betetzen dituela eta hori dela bide izendatu zitzaioela.

Ikusita, apirilaren 2ko 1985/7 Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituen legearen 104.2 artikuluan xedatutakoa, baita 2019ko maiatzaren 26ko Udal Hauteskundeak izan direla, eta ondorioz, aipatutako behin-behineko izendapena bertan behera geratu dela.

Eta, beraz, Alkateak apirilaren 2ko 1985/7 Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituen legearen 104.3 artikuluan xedatutakoaren arabera eta horrek emandako eskumenak erabilia,

EBATZI DUT:

Lehenengoa.- Eneritz Artaetxebarria Urbietara andrea lanpostu hori betetzeko baldintzak eta titulazioa betetzen dituela kontuan hartuta, behin-behineko langile izaerako izendapenaren berrespena agintzea.

Bigarrena.- Langile honek beteko duen lanpostua udal-lanpostu zerrendan agertzen den 1.2.5.01 kodedun lanpostuaren ezaugarriak eta ordainsariak izatea.

Hirugarrena.- Erabaki hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Laugarrena.- Hurrengo Udal Osoko Bilkuran honen berri ematea.

Bosgarrena.- Erabaki honen berri interesatuari, langileen ordezkariari baita Udal kontuhartzaileari ematea.

Ondarroan, 2019ko ekainaren 21ean
Alkatea
Zunbeltz Bedialauneta Ibaibarriaga"

9.- TALDE POLITIKOEN ETA BERE BOZERAMAILEEN BERRI EMATEA

Bi udaltalde eratu diren berri ematen da:

-EH BILDU Udal Taldea

Bozeramailea: Zunbeltz Bedialauneta Ibaibarriaga


Lehen ordezkoa: Eneritz Basurko Pagoaga

-EUSKO ALDERDI JELTZALEAREN Udal Taldea

Bozeramailea: Maria Dolores Etxano Varela

Eta beste gairik ez denez egon, osoko bilkura alkateak amaitutzat eman du batzarra eta idazkaria naizenez, alkatearen oniritziarekin, bertan aztertutakoa eta hartutako erabakiak jasotzeko honako akta hau egin dut.

IDAZKARIA



ALKATEA

